Bestelako Xedapenak

OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

2385

79/2009 DEKRETUA, apirilaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari baimena ematen diona, batetik, Itelazpi SA sozietate publikoaren kapital-gehikuntzan parte hartzeko, eta, bestetik, sozietate horren estatutuak aldatzeko.

Azaroaren 6ko 2/2007 Legegintza Dekretuak —Euskadiko Ondareari buruzko Legearen Testu Bateratua onartzen duenak— honako hau ezartzen du 110.1 artikuluan: «Enpresa-ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak eskuratzeko, aurretiaz, Jaurlaritzaren Kontseiluaren baimena beharko da, dekretu bidez emana, eta horretarako proposamena, berriz, ondareari buruzko eskumenak dituen saileko buruak eta, zuzenean nahiz bitarteko erakunde baten bidez, sozietatea loturik duen edo loturik izango duen saileko buruak egin beharko dute, biek batera. Dekretu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, baina, edonola ere, ematen den egunetik aurrera izango da indarrean.

Kapitala ordezkatzen duten baloreak eskuratzeko baimena ematen duen dekretuak halabeharrez adieraziko ditu, non eta ez den doako titulu modura eskuratzen, sozietatearen helburua eta EAEk sozietatean, izan zuzenean zein zeharka, zenbateko partaidetza-portzentajea izango duen.»

Itelazpi SA sozietate publikoaren xede soziala, aipatu sozietatea sortzea baimentzen duen irailaren 23ko 215/2003 Dekretuaren 2. artikulutik ondorioztatzen denez, ondokoa da: «Telekomunikazio egiturak eta sistemak kudeatu, ezarri eta mantentzea, irrati, telebista, irrati-komunikazio- eta bideo-komunikazio seinaleak garraiatu eta hedatzeko zerbitzuak ematea, eta, halaber, seinaleak transmititu eta konmutatzeko zerbitzuak eta beste edozein telekomunikazio-zerbitzu emateko.

Azterlanak egitea eta planifikazio- eta aholkularitza-zerbitzuak ematea espektro erradioelektrikoaren alorrean.

Bere jarduera eremuarekin zerikusia duten enpresetako kapitalean kasu bakoitzerako finkatutako baldintzetan parte hartzea.»

Aipatu xede soziala betetzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluaren Euskal Telebistaren (ETB) Lurreko Telebista Digitala Euskal Autonomia Erkidegoan zabaltzeko proiektua onartzen duen 2007ko maiatzaren 22ko Erabakiarekin bat, uztailaren 28ko 920/2006 Errege Dekretuan eskatzen diren epeak erraz betetzeaz gain, bere estalduraren izaera unibertsala onartzen duena, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Telekomunikazio Sa-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

2385

DECRETO 79/2009, de 21 de abril, sobre autorización de participación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en la ampliación de capital de la sociedad pública Itelazpi, S.A. y de modificación de los estatutos sociales.

El artículo 110.1 del Texto Refundido de la Ley del Patrimonio de Euskadi, aprobado por Decreto Legislativo 2/2007, de 6 de noviembre, dispone que «la adquisición de bienes y derechos integrantes del patrimonio empresarial requiere autorización previa del Consejo de Gobierno, por decreto, a propuesta conjunta del consejero o consejera competente en materia de patrimonio y del que directamente o a través de un ente instrumental se encuentre o vaya a encontrase vinculada la sociedad. El decreto será publicado en el Boletín Oficial del País Vasco, sin perjuicio de su eficacia desde la fecha en que se dicte.

El decreto que autorice la adquisición de valores representativos de capital, salvo que se trate de adquisición a título gratuito, indicará necesariamente el objeto social y el porcentaje de participación, directa o indirecta, que tendrá la Comunidad Autónoma en la sociedad.»

El objeto social de la sociedad pública Itelazpi, S.A., tal como se desprende del artículo 2 del Decreto 215/2003, de 23 de septiembre, mediante el que se autoriza la creación de la citada sociedad, constituye «La gestión, implantación, explotación y mantenimiento de sistemas e infraestructuras de telecomunicaciones, con el objetivo de prestar servicios de transporte y difusión de señales de radio y televisión, radiocomunicación, videocomunicación, transmisión y conmutación de señales y cualquier otro servicio de telecomunicación.

La realización de estudios y prestación de servicios de asesoramiento y planificación técnica en materia de espectro radioeléctrico.

Participar en el capital de empresas relacionadas con su ámbito de actuación y en las condiciones que en cada caso se determinen.»

Para dar cumplimiento al citado objeto social, en sintonía con el Acuerdo del Consejo de Gobierno de 22 de mayo de 2007, por el que se aprueba el proyecto de despliegue de la Televisión Digital Terrestre (TDT) para Euskal Telebista / Televisión Vasca (ETB) en el territorio de la Comunidad Autónoma de Euskadi que, además de cumplir holgadamente con los plazos exigidos por el Real Decreto 920/2006, de 28 de julio,

rearen elementuak, Garraio Sarea bereziki, teknologia digital berrira egokitzeko aurreikusitako inbertsioak finantzatzeko, Itelazpi SAren Administrazio Kontseiluak 2008ko martxoaren 18ko bilkuran erabaki zuen Akziodunen Batzar Nagusiari proposatzea, 215/2003 Dekretuaren 4. artikuluan xedatutakoarekin bat, bere kapital soziala hiru milioi (3.000.000) euroz handitzea.

Aipatu gehikuntzan Euskal Autonomia Erkidegoaren zuzeneko parte-hartze portzentajea % 100ekoa da.

Ondorioz, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2009ko apirilaren 21ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Bazkide bakarraren eskubideez baliatuaz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak ondoko akzioen partaidetza izatea baimentzea: berrogeita hamar mila (50.000) akzio: bakoitzak hirurogei (60) euroko balio izenduna du, serie eta klase bakarrekoak dira, hirurehun eta hogeita bi mila bostehun eta seitik (322.506) hirurehun eta hirurogeita hamabi mila bostehun eta bostera (372.505) arteko zenbakiak dituzte (biak barne), parean jaulkiko dira, eta edozein jaulkipen-gastu edo –zergatik libre daude; eta, halaber, Itelazpi SA sozietate publikoaren Akziodunen Batzar Nagusiak hartutako erabakiarekin bat etorriaz aipatu akzioak ordaintzea.

2. artikulua.– Sozietate publiko horren estatutuetako 5. artikulua aldatzea, honela geratuko delarik:

«5. artikulua.– Sozietatearen kapitala.

Hogeita bi milioi hirurehun eta berrogeita hamar mila eta hirurehun eurotan (22.350.300) finkatzen da sozietatearen kapitala, hirurehun eta hirurogeita hamabi mila bostehun eta bost akzio arruntetan (372.505) gauzatzen dena —bakoitza hirurogei (60) euroko balio izendunekoa—, batetik (1) hirurehun eta hirurogeita hamabi mila bostehun eta bostera (372.505) korrelatiboki zenbakitutakoak, biak barne, eta guztiak ere harpidetuak eta ordainduak».

asume el carácter universal de su cobertura y que, al objeto de financiar las inversiones previstas tendentes a la adecuación de elementos de la Red de Telecomunicación de la Comunidad Autónoma de Euskadi a la nueva tecnología digital, especialmente la Red de Transporte, el Consejo de Administración de Itelazpi, S.A., en su reunión de 18 de marzo de 2008, acordó proponer a la Junta General de Accionistas, conforme a lo establecido en el artículo 4 del Decreto 215/2003, una ampliación de su capital social, por un importe de tres millones (3.000.000) de euros.

El porcentaje de participación directa de la Comunidad Autónoma de Euskadi en la ampliación referida alcanza el 100% de la misma.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, y previa deliberación y aprobación del Gobierno en su sesión celebrada el día 21 de abril de 2009,

DISPONGO:

Artículo 1.– Autorizar a la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi la suscripción en el ejercicio de sus derechos de socio único, de cincuenta mil (50.000) acciones de sesenta (60) euros de valor nominal cada una de ellas, de única serie y clase, numeradas correlativamente de la trescientas veintidós mil quinientos seis (322.506) a la trescientos setenta y dos mil quinientos cinco (372.505) ambas inclusive, a la par y libres de todo gasto e impuesto de emisión, así como su desembolso, en los términos del Acuerdo adoptado por la Junta General Extraordinaria y Universal de Accionistas de la sociedad pública Itelazpi, S.A.

Artículo 2.– Modificar el artículo 5 de los estatutos sociales de la citada sociedad pública, que adoptará la siguiente redacción:

«Artículo 5.– Capital social.

El capital social se fija en la cantidad de veintidós millones trescientos cincuenta mil trescientos (22.350.300) euros y está representado por trescientas setenta y dos mil quinientas cinco (372.505) acciones ordinarias nominativas de sesenta (60) euros de valor nominal cada una de ellas, numeradas correlativamente de la uno (1) a la trescientos setenta y dos mil quinientos cinco (372.505) ambas inclusive, íntegramente suscritas y desembolsadas.»

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek onartzen denetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2009ko apirilaren 21ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto surtirá efectos desde su aprobación.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 21 de abril de 2009.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.